



HITZAK ARGIA IKUSI ZUEN DUELA 6 URTE

Tolosa Herria Hedabideak enpresak argitaratu zuen lehen aldiz; tokiko egunkariak garapen garrantzitsua izan du 5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-03-25

VIIURTEA 1.662.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo aurkeztu zuten jaialdia Olanu zinegotziak, Ugalde alkateak eta Gabellanes pilotari ohiak. R. CALVO

Ustez emaztea erail zuen gizona atxilotu dute Gernikan

TOLOSA 44 urteko emakumea tolosarra zen baina Bizkaian bizi zen; alaba ere larri dago 6

PUNTAKO PILOTARIAK ESTREINALDIRAKO

IRURA Frontoiaren inaugurazioa egingo da ostiralean; Galarza V-Arruti Ongay-Galarza VI eta Titin-Laskurain Gonzalez-Barriola ariko dira 6



Eskopeta bezala egindako kamera dago ikusgai, besteak beste. I. GARCIA

'Bidaia intimoak' dokumentala gaur, Euskaraenearen baitan

TOLOSA Korrikarentzat Jon Maiak zuzendu duen lan hau 19:30ean izango da ikusgai Kultur Etxean; lau euskaldunen bizipenak kontatzen ditu bertan 4

Hernialden argazki kamera erakusketa 3



harpidedun izateak badu saria

① 4 liburuz osaturiko sorta



Pamiela Argitaletxearen eskutik
Zazpi etxe Frantzian - Bernardo Atxaga
Izendaezinaz - Tere Irastortza
Eguntziaren esku izoztuak - Xabier Lete
Zirkua Amets - Joxan Ormazabal eta Iraia Okina

③ 2 sarrera emanldirako

Benito Lertxundi

Apirilak 3, ostirala • 20:30ean
Tolosako Leidorren



② 2 lagunentzako otordua

Isastegi Sagardotegian

Aldaba-Txiki, 15A
Tel.: 943-65 29 64 • TOLOSA (Gipuzkoa)



④ 2 sarrera erromerirako

Udaberri Dantza Taldearen eskutik
afaria eta dantzaldia
Oxabi taldearekin

Apirilak 4, larunbata • Tolosako Zerkausion



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea eskura duzula]
Aste honetako asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Emaitza onak Tolosa CFko atletentzat Espainiakoan

Atletismoa » Iruñe Agirrezabalak brontzezko domina lortu zuen, eta Aitor Arraiza eta Patxi Elosegik ere ondo aritu ziren.



Iruñe Agirrezabala, finalean, Kadeteen Txapelketan. HITZA

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan, Kadeteen pista estaliko Espainiako Atletismoko Txapelketa jokatu zen Oviedon, eta Tolosa CFko hiru gaztek parte hartu zuten, Iruñe Agirrezabalak, Aitor Arraizak eta Patxi Elosegik, hain zuzen, eta emaitza onak lortu zituzten.

Iruñe Agirrezabalak brontzezko domina lortu zuen 60 metro hesietan 9 segundo eta 27 ehuneko markarekin; «bikain lehiatu zen eta bikainak ere postua eta marka».

Aitor Arraizak seigarren egin zuen pisu jaurtiketan 12 metro eta 34 zentimetroekin, eta Patxi Elosegik bederatzigarren geratu zen luzera jauzian, 5 metro eta 53 zenti-

metro eginaz; ez zuten beraien ohiko marketara iristerik lort, baina, «emaitza onak izan dira».

Gaur, Beteranoen Txapelketa
Bestalde, gaur, Anconan (Italia) Europako Pista Estaliko Beteranoen Atletismo Txapelketa ospatuko da eta bertan Tolosatik bi ordezkari

izango dira: Armando Roca eta Andu Martinez de Rituerto.

Armando Roca 70-74 urte bitarteko kategorian lehiatuko da 60 metroko proban, eta Andu Martinez de Rituerto, berriz, 40-44 urte bitarteko kategorian, pentathlon eta altuera jauzian parte hartuko duelarik.

Azken unean galdu du partida Bidebide Ibizak Zallaren aurka

Saskibaloia » Hiruko bat sartu zuten aurkariek partida bukatzeaz zela; hurrengo partida erabakiorra izango da.

Joseba Gebresselasi eta Kike Tombak ez baitzuten bidaiatu, lesioak eta konpromezuak tarteko. Beraz, berriro ere Joseba entrenatzen ikusi ahal izan zen.

Aurkaria sailkapeneko goiko postuetan egonda ez zuten hil ala biziko partida tolosarrek, «baina jetsiera fasean etxeko partidak aurrera eramatea ezinbestekoa da denboraldiko azken fasean estuasunik ez pasatzeko».

Partidaren hasieran etxekoak indarrez kantxaratu ziren eta lehen aldea beraientzat izan ziren, baina Goarek gidatutako 0-7ko partzial batek markagailuari buelta eman zion, lehen laurdena 15-18 amaitzeko. Bigarren laurdena partiduan zegoen berdintasunaren isladan izan zen, 47-47 amaitu zelarik.

Atsedaldiaren ondoren, La-

kun eta Mikel Txikiren laurdena izan zen, ben artean taldea partidan mantendu baitzuten. 63-64 amaitu zen hau. Azken laurdenaren hasieran, ordea, inor gutxik espero zuena gertatu zen. Denbora guztian berdinduta egon eta gero segundo gutxi falta zirela tolosarrek aurretik jarri ziren (79-80). Baina azken unean, etxekoek tolosarrei baloia lapurtu zieten, eta 10 metrotik taulan lagundutako hiruko batek partida kendu zien. Azken emaitza 82-80, beraz.

Taldeko kideek dioten bezala, «kolpe gogor hontatik gogor jeiki eta lehen bailehen lanean hastea besterik ez zaigu gelditzen». Hurrengo partida erabakiorra izango dute etxean, Urdaneta talde bizkaitarraren aurrean «maila mantentzeko helburuan».

Pako Larrañaga Espainiaratzea onartu du Filipinetako Gobernuak

Alegia » Lekualdatzea berehalakoa izan daiteke, «famiari edota berak erabakitzen duenean, noiz eta nola egin».

Espainiaratzea familiaren edota bere esku dago». Hain zuzen ere, gaur izango da Moratinos Larrañagaren amarekin Espainiaratzea nola egin azaltzeko.

Larrañaga 2004an heriotzera kondenatu zuten, 1997an ustez egindako bi bahiketa eta erailketa egotzita. Beti erugabea dela adierazi du Larrañagak, gertaera latz haietatik 600 kilometro zegoela esanez. Gloria Macapagal Filipinetako presidentek 2006ko ekainean heritza-zigorra abolitu zuen eta lau hilabete geroago erabaki horrek Larrañaga heriotza-korridoretik libratzeko balio izan zuen.

ERREDAKZIOA

Alegiar jatorria duen Pako Larrañaga presoak Espainian jarraituko du zigorra betetzen. 10 urte egin ditu Filipinetako kartzela batean preso, erailketa egotzita, baina atzo bertan Miguel Angel Moratinos Espainiako Atzerri Ministroak jakitera eman zuenez, «orain,

Porrota etxean, Tolosak Aurreraren aurka

ERREDAKZIOA

Hirugarren postuan dago Tolosa Lurraldekako preferente mailan, azken partida galdu ostean. Hain zuzen ere, Ondarroako Aurreraren aurka jokatu zuten tolosarrek, eta 0-1 galdu zuten.

Partida kaxkarra izan zen, bi taldeek erakutsi zuten maila eskasari esker. Hala, bigarren zatian iritsi zen norgehiagokako gol bakarra. Aurrerakoan Erdella jokalaririk

sartu zuen penaltiz baloia sare barrura.

Ondorioz, 46 punturekin dago Tolosa, liderra, Aretxabaleta, 6 puntura dagoelarik. Bigarren postuan, puntu bateko aldearekin Hernani dago.

Hurrengo partidari dagokionez, etxetik kanpo jokatu dute tolosarrek, Amaiak Bat taldearen aurka. Sailkapeneko azken postuan kokatzen dira hauek.

Laburrak

Tolosa Kup 09 antolatzeko bilera, gaur, Kultur Etxean

TOLOSA » Tolosa Kup 09 antolatzeko hasteko asmoa dute, eta hori dela eta, bilerara deitu dute gaurko. Hau Kultur Etxean, 18:00etatik aurrera. Taldeen izen emateez, egutegiaz eta arautegiaz ariko direla besteak beste azaldu dute Gazteria sailetik, eta parte-hartzaile guztiak gonbidatu dituzte «guztien artean egiteko».

Asis Sarearen hileroko bosgarren otoiizaldia

TOLOSA » Bihar egingo dute Asis Sarearen hileroko bosgarren otoiizaldi bilkura eskualdean. Hain zuzen ere, Tolosan izango da, Klariosen komentuan, 19:30ean. Dagoneko 800dik gora lagun biltzen dituen Asis Sarearen helburua «irekitzea da eta horrenbestez herrietara, taldeengana eta pertsonengana zabaltzen jarraitzea».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Argazkia ateratzeko modukoak

Hernalde » Argazki kamera klasikoak ikusteko aukera ematen du Herri Ostatuan antolatutako erakusketak.

IMANOL GARCIA

Hernaldeko Herri Ostatuan erakusketa kurioa jarri dute. Hala definitu du erakusketa antolatu duen Mikel Iriondok berak. Ostatuaren paretetan, kutxagarden bazuen barruan, argazki kamerak daude. Baina ez nolanhikoak, horietako batzuk ehun urte inguru baitituzte.

Iriondori argazkiak egitea gus-tatzen zaio eta argazki kamera zaharrak biltzen joan da pixkanaka. Bereak dira Ostatuan erakusten diren gehienak. «Jendeak aurretik ikusi ez dituen kamerak aurkituko ditu», azaldu du Iriondok. «Garai batean argazkiak egiteko zer kamera erabiltzen ziren ikusiko du».

Erakusten diren kameren artean, interesgarrienetako bat 1900 urte inguruko egurrezko kamera bat da, erakusketako zaharrena. Beste kamera batek argazki panoramikoak ateratzen ditu, 24x112 mm-ko argazki-filmetan, objektibo alde batetik bestera mugituz. Kodak markako Folding Pocket-en lehen zenbakiko kamera bat dago ere, 1915ekoa. Beste bitxikeriari batzoriei argazkiak ateratzeko erabiltako asmakizuna dago. Eskopetabaten itxura du, kamera objektibo luze batekin gainean jarrita. Argazkia ateratzeko tiroa botako balitz bezala egin behar da.


'Minuteroa'

Argazkilari batek egindako kamera bat ikusi daiteke ere, tripode eta guzti. *Minutero* deitzen ziotela azaltzen du Iriondok eta polaroid kameraren antzera funtzionatzan zuen, hau da, argazkia atera eta minutu gutxira ematen zion argazkilariak bezeroari. Kameraren bertan itsatsita daude hainbat argazki zahar, Donostiako hondartzetan kamera horrekin ateratakoak.

Kamera bakoitzak dituen ezau-garriak azaltzen duten testuak jarri ditu Iriondok. Esan bezala, objektu kurioak ikusteko aukera ematen du egun Herri Ostatuan dagoen erakusketak. Apirilaren 6ra arte egongo da.

Hurrengoan, zeramika

Aurrera begira ere erakusketa gehiago egiteko asmoa dute Herri Ostatuaren arduradunek. Hurrengo hartzatuta dute eta zeramika erakusketa izango da. Urtzi Batisen lanak izango dira ikusgai eta Aste Santuan dagoeneko jarrita egongo da erakusketa. Ikusteaz gain, Batisen lanak ere salgai izango dira.




Erakusketan dagoen kamera zaharrena, 1900 urte ingurukoa. I. GARCIA



Eskopeta bat bezala egindako kamera eta errusiar jatorriko beste bat. I. GARCIA



'Minutero' izeneko kamera, bezeroak apain jartzeko ispilu eta guzti. I. GARCIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

'Bidaia intimoak' egiteko eta ikusteko aukera gaur

Euskara » Jon Maiak zuzendu duen dokumentalean lau euskaldunen bizipenak kontatzen dituzte, eta milaka lagunek bizi izan dituztenak islatzeko bidea ematen du.



'Bidaia intimoak' otsailaren 7an aurkeztu zuten, Bilbon. HITZA

ERREDAKZIOA

Gaur, Korrika 16ren lehen pausok Tuteran ematearekin batera, 19:30ean Tolosako Kultur Etxean *Bidaia intimoak* dokumentala izango da ikusgai. Jon Maiak zuzendutako dokumentala da eta Orio Produksioak ekoiztetxeak Korrika 16rentzako egin du lan interesgarri hau. Euskaraenaren baitan dago sartuta dokumental «umilbaina eder» hau.

Lau bidaia intimo aurkeztu ditu Jon Maiak bere dokumentalean. Lau bidaia intimo, gure hizkuntza, euskara izan da erabilitako ibilgai-lua; dokumentaleko lau pertsonaia, lau euskaldun ezezagun.

Edizio honetako omenaldia ez da ohi bezala kultur ikuskizuna

izango, Korrika 16ren omenaldia protagonistatzat dituen dokumental bat da *Bidaia intimoak*.

Lau pertsonaia, mila errealitate
Protagonistak euskaraz bizi nahi dugunon herrira etorritako lau pertsona dira, «Korrika 16ren omenaldi beroa merezi duten milaka lagunenez gisa hartutakoak».

Mixelexe, Rami, Jesus Mari eta Tereixa dira dokumentalean parte hartzen dutenak. Ezezagunak, aktore ez direnak, prest agertu dira Korrika 16ri ekarpen hau egiteko.

Mixelexe Lapurdin jaio zen, euskaldun, baina ama hizkuntza frantses eskola publikoaren eraginez galdu zuen haurtzaroan. Gaztetan berreskuratu ondoren, orain irakasle da Itsasuko AEKn.

Rami Aljeriako ber-bereia da, gaztetan Parisera ikasketak egitera joana. Han ezagutu zuen Goizueta neska batek ekarri zuen Euskal Herrira eta euskarara, eta Goizueta bizi da gaur egun.

Jesus Mari euskara izan zuen ama hizkuntza, baina txikitik Ermuan eta gero Gasteizen bizitzearen ondorioz, galdu egin zuen euskara, eskolaren eta kaleko lagunenez eraginez. Baina euskaldun eta abertzale sentitzen zen eta horrek bultzatu zuen euskara berreskuratzera, soldaduskatik bueltan.

Tereixa, berriz, Galizan jaiotakoa da, eta beste asko bezala, Bilboraino joan zen lan bila. Ikastoletan irakasleak behar zirela jakinda, berehala hasi zen euskara ikasten eta gaur egun Portugaleteko Asti Leku ikastolan egiten du lana.

Asko lau pertsona hauen bizitzetan identifikatuta sentituko dira, beraiek euskaraz bizi nahi dugunon herrira egindako ibilbidea milaka lagunek egin dutenaren antzekoa izango baita ziur aski.

«Helburuak betetzen ari gara, eta jendea hunkitzera iritsi da»

JON MAIA » Bertsolaria eta idazlea

Euskara » 'Bidaia intimoak'-ek, hizkuntza galtzeak eta berriz ikasteak zer sentiarazten duen ikusteko balio du.

NEREA URBIZU

Jon Maiak (Zumaia, 1972) Korrika 16ari begira prestatutako dokumentala zuzendu du, AEKren eskaerari baiezkoa eman ondoren. Harrerarekin «oso pozik» dago lanean aritu den talde osoa.

'Bidaia intimoak' dokumentala egin duzu. Nolatan iritsi zitzazun hau egiteko aukera?

Uda aurretik AEK nirekin harremanetan jarri zen eta aurtengo leloa zein izango zen esan zidaten: *Ongi etorri euskararen herrira*, hain zuzen. Nolabait, nik parte hartzea nahi zuten, badakidalako nire gurasoak kanpotik etorriak direla (Extremadura) eta ibili izan naizela halako gauzak egiten... Buelta batzuk eman nizkion eta proposatu nien dokumental hau egitea. Ondo iruditu zitzaizten eta uda bukaeran lanean hasi ginen.

Lau lagunek hartzen dute parte. Lehendik ezagutzen zenituen?

Lanean hasteko lau perfil adostu genituen lau pertsonaierentzat. Alde batetik AEKren sare erabili dugu jendea bilatzeko: euskaltzaztegiatik pasa den jendea, irakasle ari direnak begiratzen, ikasten ari direnak... Hor hasi ginen begiratzen eta beste alde batetik neure aldeetik hasi nintzen jendea bilatzen. Ez da kasting bat izan baina horrelako zer edo zer. Elkarrizketa asko egin genituen, jende askorekin egon ginen eta azkenean lau hauek aukeratu genituen.

Aukeraketa egin behar izan zenuen orduan?

Bai. Oso inportantea zen zein aukeratu, batetik bakoitzak ordezkatu behar zuelako perfil hori duen milaka lagun: kanpotik garai batean etorritako bat, orain etorritako bat, euskara garai batean galdu zuen bat eta beste bat orain galdu duena. Bi emakume eta bi gizon nahi genituen ere. Baldintza batzuk bazeuden eta buelta pila bat eman ondoren aukeratu genituen. **Jende asko elkarrizketatu duzue. Bada non aukeratu?**

Bai. Aukera gehien eman digun perfila orain etorritako etorkinena izan da: argentinarrik, marokorrik, Europako ekialdekoak... dezentak daude. Zailagoa egin zaigu euskara Francoren garaian galdu eta berreskuratu zuen euskaldunarena, hau da, Jesus Mariren kasua islatzen duena. Asko egongo dira baina asko kostatu zaigu perfil



HITZA

horriortzea. Garai batean kanpotik etorritakoaren kasua ere ez da erraza izan -Tereixarena-.

'Bidaia intimoak'. Zergatik?

Euskarari buruz hainbeste gauza egin dira... Planteamentu originalago bat bilatu nahi nuen. Beti hizkuntza komunikaziorako eta gizaratean dabilen zer bait bezala islatu izan da, eta interesgarriagoa iruditzen zitzaidan ahalegin pertsonala, konpromisoa, identitatea, nortasuna, integrazioa... Horiiek guztiak islatzeko hizkuntzaren alde intimoa agertzea. Hizkuntza batek zer suposatzen duen pertsona baten bizitzan, batez ere euskararen kasuan.

Hizkuntzaren esanahia, beraz?

Gurasoekin hizketan hasi ginen hizkuntza hura, seme-alabei egiten dieguna... Hizkuntza horretan sentitzen dugu, horretan pentsatzen dugu, eta euskarak zer suposatzen duen jende askorentzat: iraultza bat bere barne bizitzan: oso inportantea da hori. Bidaia bezala planteatu da guztia. Bi bidaia geografiko daude eta beste bi, barneko bidaia dira; nortasunaren, identitatearen bila egiten duzun bidaia, hain zuzen.

Zer lortu nahi izan duzue honekin?

Alde batetik omenaldia da, ahalegina egin duen jende guzti horriekin, eredu garri iruditzen bai zaizkit. Bestetik da, jendea kontzientziatzeko baliabide bezala. Zer suposatzen duen hizkuntza galtzeak pertsona batek eta zer suposatzen duen berreskuratzeko edo ikasteak. Euskaldun askok ez dute erabiltzen euskara egunerokoa eta bultzada bat ondo legoke.

Zer nolako harrera izaten ari da?

Oso pozik gaude, helburu guztiak betetzen ari dira eta ikusten dugu jendea hunkitu egiten dela, iritsi egiten zaiola. AEKk apustu dezentetik egin du gainera. Umila da baina edertasuna bilatzen du. Ez da lau testigantzen bilduma bakarrik, edertasuna ere bilatzen du eta ari ma bat baduela uste dugu. Batzuk negar egin dute eta askok euren burua ikusi dute istorio hauetan.

16. korrika
badator!

martxoaren 26an
denok Tuterara
www.korrika.org
aek
Tutera-Gasteiz 09
martxoaren 26tik
apirilaren 5era

Duela sei urte ikusituen argia lehen aldiz HITZA egunkariak

Komunikabideak » Tolosa Herria Hedabideak enpresak argitaratu zuen; tokiko egunkariak garapen garrantzitsua izan du.

NOELIA LATABURU

Erditze gogorra izan zuen HITZA egunkariak. 2003ko otsailaren 20an ateratzen azken *Tolosaldean Eguneroko*, Luis Del Olmo epaileak *Egunkaria* itxi zuenean. *Euskal Herrian Eguneroko* ateratzen zuten orduan *Egunkariako* langileek Tolosako egoitzan lan eginez, eta *Galtzaundi* mantxetarekin ateratzen eskualdeko egunkaria. *Galtzaundiren* egoitzan lan eginez.

Martxoaren 23an ateratzen zuen lehen TOLOSALDEKO HITZA enpresa berri batek, Tolosa Herria Hedabideak enpresak, hain zuzen ere. Pixkanaka hezitzen joan zen: 2004ko maiatzaren 21ean Leitzaldera zabaldu zen HITZA. Geroztik etorri ziren webgunea (www.tolosaldekohitza.info), lehiaketak, pro-

mozioak eta bestelako berrikuntzak. Eta heldutu ere heldutu da.

Duela urte eta erdi inguru bere itxura ere aldatu zuen euskarazko tokiko egunkariak, baina oraindik garrantzitsuagoa dena, kazetari-tza egiteko modu berri bati ekin zion, anitza, zabala eta webgunearekin estuki lotuta.

Euskararen normalizazioaren alorrean sekulako lana egin du eskualdeko egunkariak, hasieran jarritako helburuak ondo betetz. Urteen poderioz, komunikabide profesionala, anitza eta interesgarria dela erakutsi du. Guztiok ohitu gara dagoeneko etxeko buzoian HITZA jasotzera. Eskualdean 12.000 irakurle ditu egunkariak eta CIESeko datuek eskualdeko bigarren egunkari bezala jartzen dute.

Pixkanaka anaiak ere heldu zaizkio Tolosakoari. Oarsoaldea, Urola-Kosta, Irutxulo eta Goierriko Hitzek osatzen dute Gipuzkoako familia. Lea-Artibai eta Mutrikuak eta Busturialdekoa, berriz, Bizkaikoa. Eta herenegun bertan



Bosgarren urteurrenaren harira, haurrentzat Xurdirin emanaldia eta bertso afaria antolatu zituen HITZAK, iaz. N. GARZIA / L.TERRADILLOS

abiatu zen Behe Bidasoako Hitzak. Familia ugaria da, dudarik gabe, tokiko euskarako egunkari hauen sare zabala.

Hasierako ildoak mantenduz
Lehen ildotik jarraitzen du bieskualdeetako egunkari euskaldu-

nak. Bai *Tolosaldean Eguneroko* bere garaian eta baita HITZAK ere. Eskualdeetako berriak eman nahi ditu, irakurtzeko garaian era errazean, ulergarrian, argi. Euskararen normalizazioan ere bere aportazioa egin nahi izan du, euskara gure hizkuntza bai ahoan eta bai

Z Zenbakiak

12.000

■ **Irakurle.** Ditu eguneroko HITZA egunkariak gure eskualdean. HITZA guztiak batuz gero Gipuzkoan 70.000 irakurle inguruk aukeratzeko HITZA eskualdeko albiste berri izateko.

2.000

■ **Bisitari.** Jasotzen dituzte batez beste eguneroko 'www.tolosaldekohitza.info' helbideak. Bertan parte hartzeko aukera zabala dago.

begietan egon dadin. Gaur egun, 12.000 irakurle inguru ditu, eta internet bidez, www.tolosaldekohitza.info webgunearen bidez, berri, eguneroko 2.000 lagundik gora bisitatzen dute.

Aterza begirada

Eskualdean euskarazko komunikabide bat izateko prozesu honetan langile, eragile eta eskua bota duen jende asko igaro da. Orotara 333 Eguneroko, 27 Galtzaundi egunkaria eta 1.662 HITZA argitaratu dira orain arte, eskuan duzuen hau barne. Datuak datu, HITZA jaiotzen, hazten, koskortzen eta heldutasunera heltzen ikusi dugu; zahartzarora helduta ere bizitza luzea opa diogu. Urte askoan HITZA!

6 urte

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** 

eskualdeetako albisteak etxeratzen



Jarrai dezagun inoiz baino gehiago **euskarazko prentsa** kontsumitzen, erabiltzen, zabaltzen, sustatzen, laguntzen...





Jose Luis Olano zinegotziak, Marimi Ugalde alkateak eta Antton Gabellanes pilotari ohiak egin zuten aurkezpena. R.CALVO

Pilota jaialdi bikaina antolatu dute frontoi berria inauguratzeko

Irura » Galarza V-Arruti Ongay-Galarza VI eta Titin-Laskurain Gonzalez-Barriola bikoteak ariko dira ostiral honetan.

REBEKA CALVO

Irurak ostiral honetan, hilak 27, emango dio ongietorri ofiziala pilotaleku berriari. Arazo ugari izan dituzte berriete lanetan; «ezker hormarekin arazo ugari izan ditugu. Hiru aldiz botabehar izan dugu

eta duela bi urte bukatutzat ematen bagenuen ere, azkenean luzatu egin da», agertu zuen Marimi Ugalde alkateak atzo eskainitako prentsaurrekoan. Pilotalekua, hala ere, ez dago guztiz bukatuta, oraindik ere aldagelak berriitu eta handitu behar dituzte eta hauek trinketearekin zuzenean lotu.

Inaugurazio berezia

Inaugurazioa ez da edonolako izango, pilotari bikainak gonbidatu dituzte herrira eta pilota jaialdi ederra eskainiko dute. Izan ere,

«balioanitzeko pilotaleku hau beste ekitaldi batzuetarako erabiliko dugun arren, ez genuen pilota partidarik gabe inauguratu nahi», argitu zuen alkateak. Inaugurazio ofiziala ostiralean egingo duten arren, «inaugurazio herrikoa» ere egingo dutela esan zuen Ugaldek zentzu honetan, baina hori maiztzean izango da Kultur Astearen baitan. «Berez maiztzean egin nahi genuen guztia, baina pilotariak banakako partidak izango dituzte orduan eta ezin zuten Irurara etorri. Horregatik aurreratu

dugu ekitaldia ostiral honetara», esan zuen.

Partidak inaugurazioaren ondotik hasiko dira, 22:00ak aldera, eta bertan lehenengo ariko diren bikoteak hauek izango dira: Galarza V-Arruti eta Ongay-Galarza VI. Partida nagusia, aldiz, ondoren jokatuko dute: Titin-Laskurainek eta Gonzalez-Barriola.

Pilota jaialdia ikusteko sarrerek 20 euro balio dute eta herriko hainbat puntutan eskuratu daitezke: Zahar Etxe tabernan, Opil onkindegi-kafetegian, Aizpurua Ja-

tetxean, Amets Estankoen eta Trinketeen. Ostiral arratsaldetik aurrera, aldiz, pilotalekuko lehiatilan ere erosi ahal izango dira.

«Oso pilotari onak dira, maila handikoak. Gonzalez eta Barriola puntan puntan daude orain eta Titin ere, nahiz eta 40 urte izan, oso ondo ariko da, segurua», esan zuen Antton Gabellanes pilotari ohiak. Gabellanes irurarra eskuzko pilo-

Partidak 22:00ak aldera hasiko dira eta sarrerak 20 euroren truke eskura daitezke.

taria izan da urte askoan 36 urte zituela istripu bat izan eta erretiratu behar izan zuen arte. Atzelaria 17 urterekin gazte mailan Espainiako txapeliduna izan zen, nahiz eta beste sari asko ere eskuratu zituen.

Inaugurazioan bera izango da, hain justu, ohorezko saka egingo duena, zinta mozketaren ondoren egingo du eta dantzariak ere izango dira. «Herrian beti izan dugu pilotarekiko afizio handia, baina gehienbat sarean aritzen ziren, eskuz baino gehiago. Trinketezale asko egon izan da beti. Gu elizako arkupean aritzen ginen eskuz. Alkizara ere joaten nintzen. Pilotaleku berriak mesede egingo dio pilotazaletasunari herrian, oso herri ona da», esan zuen Gabellanesek.

Trafiko argibideak

Marimi Ugalde alkateak, era berean, partidak inkustera autoz joaten direnei trinketearen eta pilotalekuaren inguruko aparkalekuak telebista, prentsa eta pilotarientzat bakarrik izango direla argitu zuen. Beraz, pilotazaleek industrialdean izango dute aparkatzeko aukera. «Autoak herrian bertan utzi nahiko dituzte batzuk, baina erdigunea txikia da, nere gomendioa zuzenean industrialdera joatea da», gaineratu zuen. Ezinduentzako ere egin zuen gomendapenik: «Partidak hasi baino 30 minutu lehenago etorri eta antolatzailaetako batek esango die zer egin».

Gernikan ustez emaztea erail duen gizona espetxeratu dute

Tolosa » 44 urteko I.J. hildako emakumea tolosarra zen, nahiz eta urteak zeramatzen Bizkaian bizitzen.

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoa Sailak atzo argitu zuenez, 48 urteko gizon batek ustez bere emaztea erail eta alaba zauritu zituen astelehen gauean Gernika-Lumon (Bizkaia). Hildako emakumeak, I.J., 44 urte zituen eta larri zauritu-

tako alabak, aldiz, 19. Gizonezkoa etxe inguruan atxilotu zuen Ertzaintzak hilketara burutzeko erabilitako labana soinean zuela. Epai-leak atzo arratsaldean eman zuen gizonezkoa espetxeratzeko agindua eta Basauriko (Bizkaia) presondegiara eraman zuten. Psikiatra batek azterketa medikua egingo dio bertan.

Hildako emakumearen familia Lodosakoa da, baina emakumea tolosarra zen eta urteak zeramatzen Busturialdean; 2007. urtean joan zen emakumea Gernika-Lumora.

Bizilagun batek ohartarazita joan zen Ertzaintza Gernika erdizuneko Barrekale kaleko etxebizitzara eta honek, gainera, hilketan 11 urteko semearen eta 19 urteko alabaren aurrean egin zuela esan zion Ertzaintzari.

Larri zauritutako alaba Galdakako erietxera eraman behar izan zuten eta I. J. -ren gorpua, berriaz, Bilboko Auzitegiko Patologiko Zerbitzura.

Era berean, Ertzaintzak jakinarazi zuen emakumeak ez zuela inoiz tratatu txarren aurkakako salaketarik egin.

Laburrak

Garagardo Festa egingo dute ostiralean

BELAUNTZA • Belauntzan Garagardo Festa egingo dute ostiral honetan Herriko Taberna-Jatetxean 20:00etan. Garagardo desberdinen dastaketarekin batera kodilloak eta saltxitxak jateko aukera ere izango da. Euskal kantuak abestuko dituen abeslari bat ere gonbidatu dute eta ondoren karaokea izango da. Era berean, ostegunean 19:30ean Kultur Etxean Aste Santuen ondoren izango diren ikastaroak aukeratzeko bilera egingo dute. Informazio gehiago eskuratzeko deitu 943670020 telefonoa edota idatzi belautza@euskalnet.net helbidera.

Astero azoka antolatu ahal izateko deialdia

IBARRA • Ibarako Udalak astero astero azoka egin nahi du herrian epe laburrera. «Batetik, herriarrek bertako produktuak erosteko aukera eduki dezaten eta bestetik, herri giroa areagotzen duen bilgune bat sortu nahi dugun», argitu dute Udaleko arduradunek zentzu honetan. Azoka antolatu ahal izateko, ordea, postu desberdinak behar dituzte (janaria, arropa, oinetakoak, goxokiak, fruta, barazkiak, haragia...) eta euren produktuak saldu nahi dituzten ekizilei postua jartzeko eskaera Udaletxean egiteko gonbita luzatu nahi die Udalak.



Leaburu-Txaramako hainbat herritar azken ostegunetan elkartzten dira 20:00etan Leaburuko plazan. HITZA

Etxerategen azken ostiraleko elkarretaratzeak egingo ditu ohiko ordu eta lekuetan

Politika » Hauteskundeen ondorena eta Tolosaldeko azken atxiloketak aztertuko dituzte elkarretaratze amaieretan.

ASIER IMAZ

Euskal Errepublikaren Senitartekoak elkarteak, hau da, Etxerategen elkarretaratzeak egingo ditu hainbat herritan bihar eta etzi,

azken ostiraleko bezala. Etxerategen herritarrei deialdia egin diete, ekimen hauetan parte hartzearen beharra azpimarratuz.

«Hauteskundeen ondoren?»

Etxerategen esanetan hauteskundeen ondoren hainbat alderdi politikok «gure arreta lortzeko hamarnaka saiakerak» egin ohi dituzte.

Etxerategen erantzunak nahi ditu ordea. Horretarako 7 galdera egin dizkie ordezkari politikoei: «1-Hu-

rrenge agintaldian, zer nolako konpromisoak hartuko dituzu gure senide eta lagun presoek eskubideak errespetatuak izan daitezten? 2-Zer nolako konpromisoak hartuko dituzu gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten gure senide eta lagunak aska ditzaten? 3-Zer nolako konpromisoak hartuko dituzu hamarnaka Euskal Herriarrei bizi-osorako zigorra aplikatu ez diezaioten? 4-Hurrengo agintaldian, zer nolako konpro-

misoak hartuko dituzu, sakabana-keta eta espetxe politika krimina-larekin amaitzeko? 5-Zer nolako konpromisoak hartuko dituzu NBE elkarte ordezkariek egini-ko gomendioak betetzeko? 6-Etxerategen elkarteekin biltzeko eta gure kezak zuzenean entzuteko konpromisoa hartuko al duzu? -7 Hurrengo agintaldian, zer nolako konpromisoak hartuko dituzu azken hilabeteetan euskal preso politikoen senide eta lagunak pairatzen ari garen erasoekin amaitzeko?».

Castroren tortura salaketa

Bestalde, hilaren hasieran Ertzaintzak atxilotu zituen Manex Castro eta Mikel Garmendia billabonatarrek «gogoan» edukiko dituzte elkarretaratzeetan. Hauen berri emateaz gain Manex Castroren tortura salaketa aipatuko dute, «horrelako astakeriekin amaitu beharra dagoela» azpimarratuz.

» ELKARRETARATZEAK

Martxoak 26, bihar

■ Leaburu-Txarama. 20:00etan.

Martxoak 27, etzi

■ Aduna. 20:00etan.

■ Alegia. 19:30ean.

■ Amezketa. 19:30ean.

■ Anoeta. 19:30ean.

■ Asteasu. 20:00etan.

■ Ibarra. 19:30ean.

■ Ikaztegieta. 20:30ean.

■ Leizta. 20:00etan.

■ Lizartza. 20:00etan.

■ Tolosa. 19:30ean.

■ Villabona. 20:00etan.

■ Zizurkil. 20:00etan.

Saharar herriari elkartasuna agertuko diote etzi Aurrera Kirol Elkarteak

Leizta » Ekimen ugari burutuko dituzte ostiralean 19:30etik aurrera Saharar herria ardatz hartuta.

A. IMAZ

Leiztako Saharar herriarekin elkartasun taldeak hainbat ekitaldi antolatuko ditu etzi Aurrera Kirol Elkarteak.

Saharar herriaren aldeko jardunaldia 19:30ean hasiko da. Amaieran berriz afari merienda baten inguruan egingo dute.

Ekitaldiak, 19:30etik aurrera

Herrialde afrikarraren inguruko jardunaldia *Sahara no se vende* dokumentala ikusiz hasiko dute Aurrera Kirol Elkarteak biltzen direnek, 19:30ean. Honen harira, saharar herriaren ordezkari batek hitzaldia eskainiko du. Ondoren diplomak banatuko zaizkie Saharar haurrak udaran etxean eduki dituzten familiei. Azkenik, afari merienda egingo dute.

T Telefonoak

Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leiztaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Larunbatean Bartola euskal kantak abesten arituko da. BARTOLAREN BATZORDEA

Ibarrako Bartola kantuan ariko da larunbatean

A. IMAZ

Bartolaren Batzordean biltzen diren herritarrek Kantu Bazkaria antolatuko dute hilaren 28an, larunbatean. Bazkaltzen hasi aurretik ordea, kalejira egingo dute herriko trikitilariekin eta bertolariekin. Horretarako 11:00etan gelditu dira herriko plazan.

Bizi Nahi elkarteak 14:30ean

Kalejira 14:30ean San Inazio auzoan amaituko da. Bertan, Bizi Nahi elkarteak, bazkaria egingo baitute. Ondoren, euskal kantua abestuko dituzte lagun giroan. Txartelak Zubiaurre, Atari eta Danon Txokoan aurkitzen dira salgai 15 eurotan.



Ibarran jende ugari bildu zuten Pirritx, Porrotx eta Marimototsek. BARTOLA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Leiztan ikusteko aukera

A. IMAZ

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Leiztako kiroldegian egingo dira maiatzaren 13an, asteazkenean. Bertan euren azken ikuskizuna eskainiko dute: *Piratak*.

Pailazo ospetsuenak ikusi nahi dituenak sarrerak Maimur eta Astiz liburudendetan aurkituko ditu

6 euroren truke. 2007, 2008 eta 2009an jaiotako haurrek doan edukiko dute sarrera.

Antolatzaileak eta laguntzaileak

Piratak ikuskizuna Leiztara ekarzteko lanetan Denok Bat guraso elkarteak eta Aurrera KE aritu dira, Udalaren laguntzarekin.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Teléfonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balañarain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Anoeta.** Podologoaren bisita izango dute Alkartasuna Biltokian 14:45ean.
- **Larraul.** Denbora bankuaren informazioa ematea, liburutegian, 17:00etan.
- **Leaburu.** 55ko kintoen festa apirilaren 4ean Leaburun meza eta bazkaria bertako Ostatuan eginez. Izen-ematea, 943 671548 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Tolosa Kup 09 areto futbol txapelketa martxan jartzen hasteko bilera parte-hartzaileekin, taldeen izen-ematea, egutegia eta arautegia bezalako puntuak guztien artean zehazten joateko Kultur Etxean.
- **Tolosa.** Bigarren Hezkuntzako graduatu titulora lortzeko proba libre break aurki izango dira Tolosan. Izen-ematea Tolosako HHIn eman beharko da izena, eta azterketa maiatzaren 20an izango da, EPAn bertan.
- **Tolosa.** La Serena bailaran jaiotakoek eta bere ondorengoek festa eta bazkaria izango dute igandean La Jara Extremadurako Etxean. Izen-ematea, 943 675419 edp 675 707619 telefonoetan (20 euro).

Ikuskizunak

- **Tolosa.** Euskaraenea: 19:30ean Kultur Etxean *Bidaia intimoak* dokumentala, Jon Maiaren zuzendaritzapean egindakoa Korrika 16 dela-eta.

Zinema

- **Tolosa.** *Party Girl*, *Chicago años*

30 filma jatorrizko bertsoian Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

Kirola

- **Irura.** Pilotalekuaren inaugurazioa ostiralean Titin III.a-Laskurain eta Gonzalez-Barriola bikoteen arteko partidarekin. Sarrerak salgai 20 eurotan herriko tabernetan.
- **Villabona.** Aizkardi mendi elkar-teak 41. Ibilaldia antolatuko du hilaren 29rako Andatza, Adarra eta Leitza inguruan. Ibilbide luzea (46 km, 10 ordu, 6:30ean abiatuta) eta motza (22 km, 5 ordu, 8:00etan abiatuta). Informazioa: 649 717 182 zenbakia edo *ibilaldia@aizkardi.com*.

Irteerak

- **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek antolatuko irteera hauetarako lekuak gelditzen dira: Asturias (hilaren 23), Galiza (maiatza) eta Platja de Aro (ekaina). Izen-ematea, elkartean bertan.
- **Ibarra.** Nafarroako Iñurieta upategira joateko irteera antolatuko du hilaren 28rako 15 eurotan. Izena eman nahi duenak herriko Azoka izeneko dendan egin beharko du (Euskal Herria kalea, 45 zenbakia).

GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Unsain anaien trikiti doinuak

TOLOSA • Bonbereneak datorren astebururako musikaz beteriko asteburua antolatuko du. Hala, larunbatean, Unsain Anaiak taldea ariko da 22:30etik aurrera. Tolosarrekin etxean joko dute, beraz, euren trikiti doinuak zabalduz. «Helburua odolean trikiti doinuak dutenek gurekin batera goza dezaten» izango da. Bezperan berriz, ostiralean, Cordura eta Lords of Bukkake taldeak ariko dira 22:30etik aurrera. HITZA

Maño de Oz

KONTZERTUAN

APIRILAK 4
24:00

→ **25€** AURRETIK → **28€** TAKILAN

SALMENTA PUTUAK: TICK-TACK-TICKET
IRUÑEKO TABERNAK: ONKI MIN / BLACK ROSE
TOLOSA: ZUNBELTZ
LEKUNBERRI: ILARGI ETA AKER

sala
muXU

Antolatzailea: **yaluna**
Laguntzailea: **DN**
DIARIO DE NAVARRA

www.salamuxu.com Lekunberri

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa